Bestelako Xedapenak

**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**

1563

77/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Araba Logística SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu eta ezabatu eta aldatzeari buruzko uztailaren 16ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.g artikuluak lurretikako garraioetan ematen dizkion eskumenak erabiliz, eta horrekin bat, azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuak –Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituenak– lurreko garraioaren arloan zuzendaritza eta koordinazioa esleitzen dio Garraio eta Herri Lanetako Sailburuordetzari, eta Garraio Zuzendaritzari, berriz, merkantzien eta bidaiarien garraioen eta garraioen inguruko jarduera lagungarri eta osagarrien plangintza eta antolamendua, baita Euskal Autonomia Erkidegoan garraioaren logistika garatzea ere.

2003ko otsailaren 13an, bere protokoloko 473. zenbakiarekin, Alfredo Pérez Ávila jaunak -Bilboko Elkargoko notario denak- emandako eskrituraren bitartez eratu zen «Araba Logística, Sociedad Anónima» izeneko merkataritza-sozietatea, sozietate anonimo gisa eta bere hasierako bazkideak honakoak zirela: Álava Agencia de Desarrollo SA, Araba Gertu SA eta Acesa Promotora Logística SA.

Zerbitzu komunak emateko eta jarduera logistikoetarako eraikinak altxatu, urbanizatu, garatu eta ustiatzea da sozietatearen xedea, hain justu ere aipatu obra eta zerbitzuen planifikazioa, laguntza teknikoa, kudeaketa, antolamendua, koordinazioa, zuzendaritza, mantentze-lanak eta kontserbazioari dagokionez, betiere zuzenbidez zilegi diren kontratuen barruan. Halaber, garraio- eta komunikazio-azpiegituren obra eta zerbitzuei atxikitako «zerbitzu-guneak» kudeatu, mantendu eta ustiatzen ditu.

2004ko apirilaren 20an, Fernando Ramos Alcázar jaunak, Bilboko Elkargoko notario denak (1519. zenbakia) egindako eskrituraren arabera, «Álava Agencia

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**

1563

DECRETO 77/2010, de 2 de marzo, sobre autorización de participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación de capital de la sociedad Araba Logística, S.A.

En ejercicio de las atribuciones que le corresponden en materia de transportes terrestres, conforme al artículo 10.1.g) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y en coherencia con el mismo, el Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, atribuye a la Viceconsejería de Transportes y Obras Públicas, la dirección y coordinación en el área de los transportes terrestres y, a la Dirección de Transportes, la planificación y ordenación de transporte de viajeros y mercancías y de las actividades auxiliares y complementarias del mismo, además del desarrollo de las políticas logísticas para el transporte en el País Vasco.

Por escritura otorgada el 13 de febrero de 2003 ante el Ilustre Notario del Colegio de Bilbao, D. Alfredo Pérez Ávila, y con el número 473 de su protocolo se constituyó la sociedad mercantil, de forma anónima, con la denominación de «Araba Logística, Sociedad Anónima», siendo sus socios iniciales Álava Agencia de Desarrollo, S.A., Araba Gertu, S.A., Acesa Promotora Logística, S.A.

Su objeto social se centra en la urbanización, construcción, desarrollo y explotación de edificaciones destinadas a actividades logísticas y prestación de servicios comunes, en la planificación, asistencia técnica, gestión, organización, coordinación, dirección, mantenimiento, y conservación de tales obras y servicios, bajo cualquiera de las formas contractuales permitidas en derecho. Asimismo, se dedica también a la gestión, mantenimiento y explotación de las «áreas de servicios» anexas a las obras y servicios de infraestructura del transporte y las comunicaciones.

Según escritura otorgada el 20 de abril de 2004 ante el Ilustre Notario del Colegio de Bilbao, D. Fernando Ramos Alcázar, el número 1519, la Com-

de Desarrollo SA» merkataritza-konpainiak ondokoak saldu eta transmititu zizkion Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari: «Araba Logística SA» sozietatearen hamar mila akzio, 11.001etik 21.000ra zenbakituak (biak barne), bakoitza hogeita hamar (30) euroko balio izendatua zuena, guztiak ere ordainduak, guztira hirurehun mila (300.000) euroko kopurua.

Adostutako gehikuntza egin aurretik, sozietatearen kapitala hogeita hamalau milioi seiehun mila eta berrehun (34.600.200) eurokoa da, eta hogeita hamar (30) euroko balio izendatuko milioi bat ehun eta berrogeita hamahiru mila hirurehun eta berrogei (1.153.340) akziok osatzen dute, ohikoak eta izendunak; akziook 1etik 1.153.340erako (biak barne) zenbaki korrelatiboko serie bakarra osatzen dute; eta kapital guztia, bestalde, harpidetua eta ordaindua da. Kapitalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hiru milioi laurehun eta hirurogei mila eta hogei (3.460.020) euroko partaidetza eta harpidetza du.

Konpainiak 2010erako dituen diruzaintza aurreikuspenen arabera, proposamena egin zaio sozietatearen Akziodunen Batzordeari, zertarako eta, helburu horri begira, entitatearen kapitala bost milioi eta bostehun mila (5.500.000) eurotan gehitzeko. Horretarako, ehun eta berrogeita hamahiru mila (153.000) akzio berri jaulki eta zirkulazioan jarriko dira, zeinek izendun tituluz ordezkatuta baitaude eta, aurrekoak bezala, balio izendatu eta eskubide eduki berekoak baitira. Akzio bakoitzaren balioa hogeita hamar (30) eurokoa da.

Akzio berriak balio izendatuaz jaulkitzen dira; akzio bakoitzeko, 5,9477124 euroko jaulkipen prima izango dute; eta 1.153.341tik 1.306.340ra zenbatuko dira modu korrelatiboan.

Aipatu konpainiaren kapital sozialaren % 10 EAEko Administrazioarena denez, lehentasunezko eskurapen-eskubidea dagokio, betiere dituen akzioen proportzioaren arabera; hortaz, eskurapen-eskubidea baliatu nahi badu eta partaidetza-portzentaje berberari eutsi, gehikuntzaren % 10eko ekarpena egin behar du, hau da, 15.300 akzio, laurehun eta berrogeita hemeretzi mila (459.000) euroko balio izendatua egiten dutenak, eta laurogeita hamaika mila (91.000) euroko jaulkipen-prima; guztira bostehun eta berrogeita hamar mila (550.000) euro ordainduaz.

EAEko Administrazioaren politika garraio sektoreko logistika zentroak indartzea da; eta jarrera horri ekinaz, bidezkotzat jotzen da Araba Logística SA sozietatearen kapital gehikuntza horretan parte hartzea. EAEko Administrazioak kapital sozialean % 10eko partaidetza izango du, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuko 110. artikuluan eta gainerako xedapen bateragarrietan adierazitakoaren arabera.

pañía Mercantil «Álava Agencia de Desarrollo, S.A.» vendió y transmitió a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi diez mil acciones de la Sociedad «Araba Logística, S.A.» nominativas, números 11.001 a 21.000, ambos inclusive, de treinta (30) euros de valor nominal cada una de ellas, totalmente desembolsadas, representado todo ello un total de trescientos mil (300.000) euros.

El capital de la sociedad, anterior a la ampliación acordada, asciende a treinta y cuatro millones seiscientos mil doscientos (34.600.200) euros, representado por un millón ciento cincuenta y tres mil trescientos cuarenta (1.153.340) acciones ordinarias y nominativas, de treinta (30) euros de valor nominal cada una, que constituyen una serie única de numeración correlativa del 1 al 1.153.340, ambos inclusive, y ha sido totalmente suscrito y desembolsado en metálico. El capital participado y suscrito por la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi es de tres millones cuatrocientos sesenta mil veinte (3.460.020) euros.

De acuerdo con las previsiones de tesorería de la compañía para el ejercicio 2010, se ha previsto proponer a la Junta de Accionistas de la sociedad que a tal fin se convoque, la adopción del acuerdo de ampliación de capital de la entidad en la cifra de cinco millones quinientos mil (5.500.000) euros mediante la emisión y puesta en circulación de ciento cincuenta y tres mil (153.000) nuevas acciones, representadas por títulos nominativos, de igual valor nominal y contenido de derechos que las anteriores y por importe de treinta (30) euros cada acción.

Las nuevas acciones se emiten por su valor nominal y una prima de emisión por acción de 5,9477124 euros y serán numeradas correlativamente del 1.153.341 al 1.306.340.

Dado que la Administración de la CAPV es titular del 10% en el capital social de dicha compañía, le asiste un derecho de adquisición preferente en proporción a las acciones que ostenta, por lo que, si desea ejercitar el derecho de adquisición preferente y mantener el mismo porcentaje de participación, debe aportar el 10% de dicha ampliación, esto es de 15.300 acciones por valor nominal de cuatrocientos cincuenta y nueve mil (459.000) euros y una prima de emisión de noventa y un mil (91.000) euros, con un desembolso total de quinientos cincuenta mil (550.000) euros.

Siguiendo con la política de la Administración de la C.A.P.V. de potenciar los centros de logística del sector del transporte, se estima adecuado acudir a la referida ampliación de capital de la sociedad Araba Logística, S.A., siendo posteriormente el porcentaje de participación de la Administración de Euskadi en el capital social del 10%, todo ello conforme al procedimiento señalado en el artículo 110 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de Patrimonio de Euskadi, y demás disposiciones concordantes.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasun eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, Araba Logística SAren diruzaintza aurreikuspenen arabera. Gehikuntza hori Akziodunen Batzar Nagusiari –helburu horretarako deitzen denari– proposatzea aurreikusi da. EAEren ekarpena laurehun eta berrogeita hemeretzi mila (459.000) eurokoa da, eta jaulkipen prima laurogeita hamaika mila (91.000) eurokoa, bostehun eta berrogeita hamar mila (550.000) euroko ordainketa eginaz.

2. artikulua.– Baimena ematea Ondare eta Kontratazio zuzendariari edo parte hartzeko kideeskubideak dituenari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, akzioak harpidetu eta estaltzeko beharrezkoak diren ordainketak eta ekarpenak egiteko, kapital-gehikuntzak gizarte-estatutuetan eragiten duen aldaketa onartzeko, bai eta, orokorrean, aurreko artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren gainontzeko jarduketetan aritzeko ere.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 2an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, y previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de marzo de 2010,

DISPONGO:

Artículo 1.– Autorizar la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma en la ampliación de capital de acuerdo con las previsiones de tesorería de la sociedad Araba Logística, S.A., la cual se ha previsto proponer a la Junta General de Accionistas de la sociedad que a tal fin se convoque, con una aportación por parte de aquella de cuatrocientos cincuenta y nueve mil (459.000) euros y una prima de emisión de noventa y un mil (91.000) euros, con un desembolso total de quinientos cincuenta mil (550.000) euros.

Artículo 2.– Se autoriza indistintamente al Director de Patrimonio y Contratación o a quien corresponde el ejercicio de los derechos de socio para concurrir, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a materializar los desembolsos y aportaciones necesarias para la suscripción y cobertura del importe de las acciones correspondientes, así como para prestar su conformidad a la correspondiente modificación de los estatutos sociales motivada por la ampliación de capital y, en general, para el ejercicio de cuantas actuaciones sean necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo anterior.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.